- Así mismo informa de la disolución unilateral por parte del Gobierno de Navarra de la fundación Erro-Roncesvalles. Por lo cual se ha solicitado una reunión con el Consejero del Departamento de Fomento Sr. Zarraluqui. Reunión que se nos ha dicho que se va a mantener pero todavía no ha sido convocada.

13.- RUEGOS Y PREGUNTAS

- Toma la palabra el concejal Sr. Ernaga, que pide solicitar una reunión con el Departamento de Fomento para insistir sobre la subvención del asfalto de la travesía y hablar también sobre las obras de Mezkiritz y Lintzoain. Toma la palabra el alcalde Sr. Garralda que informa que con quien hay que hablar es con Administración Local que es el Departamento competente y que en cuanto al coste del asfalto de la travesía ya se dijo en sesión que iba a ser en parte asumida la subvencionado por dicho Departamento. Respecto a las obras de Mezkiritz siguen diciéndole desde el Gobierno que se podrán ejecutar este año, pero que en todo caso, si que habrá que reunirse para insistir con las obras de Lintzoain (II fase) y Bizkarreta-Gerendiain (III fase).

Y no habiendo más asuntos que tratar siendo las 15,45 horas del mismo día se levantó la sesión de lo que doy fe.

Lintzoainen, Erroibarko udaletxean, 2014ko otsailaren 25ean, 13:00etan, Erroibarko Udala bildu zen lehen deialdian bilkura arrunta egiteko. Bertaratu ziren zinegotziak: Jesús Esteban Juanarena Apesteguia, Miren Orreaga Urtasun Alegre, Álvaro Villanueva Azcarate, Gabriel María Ernaga Esnoz eta María Roncesvalles Martínez Sagardia, bilkuraburu alkatea, Enrique Garrada Erro, izan zen eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure. Miguel Echamendi Hernandezek etortzerik ez duela jakinarazi du.

1.-2013KO ABENDUAREN 18AN ETA 2014KO URTARRILAREN 29AN EGINDAKO BILKUREN AKTEN ONESPENA

Udalak erabaki du aho batez 2013ko abenduaren 18an eta 2014ko urtarrilaren 29an egindako osoko bilkuren aktak onartzea.

2.- ALKATEAREN EBAZPENAK 2013ko ABENDUAREN 14TIK 2014ko OTSAILAREN 20A ARTE

Alkateak, Garralda jk., 2013ko abenduaren 14tik 2014ko otsailaren 20a arte eman dituen ebazpenen inguruko informazioa eman du. Zinegotziak jakinaren gainean gelditu dira.

Martinez ak. hitza hartu du eta galdetu du zer den Ebroko Konfederazio Hidrografikoari Zilbetin iturri bat erabiltzeko egin zaion eskaeraren ebazpena; alkateak, Garralda jk. erantzun dio Astobiakoaren ondotik iturri nagusitik bigarren batera doan tutueria jarri zela eta hori legeztatu gabe dagoela eta horregatik egin dela eskaera hori.

Ernaga jk. hitza hartu du eta 220/2013 ebazpenari buruz galdetu du zer den, eta idazkariak erantzun dio gainbalioaren kitapena dela (Hiri Lurren Balioaren Igoeraren gaineko zerga), ondasun higiezin baten transmisioaren gainekoa, Eurolubke S.A eta Santander Bankuaren artekoa. Bermeen itzulerean ebazpenei dagokienez, galdetu du berme horiek Bizkarreteko zolaketa lanen adjudikazioaren deialdian parte hartu zuten enpresei dagozkien eta baietz erantzun zaiou.

3.- SOROGAINGO BAZKALEKUEN APROBETXAMENDUAREN ARAUAK 2014

Udalbatzak erabaki du aho batez Sorogaingo bazkalekuen aprobetxamenduaren arau hauek onartzea 2014. urterako:

- 1.- Frantses ardi-azienda sartzeko debekua mantentzea 2014. urtean.
 - 2.- Frantses zaldi-azienda sartzeko debekua mantentzea.
 - 3.- Sorogaingo bazlekuen aprobetxamenduaren 2014ko arauak onestea.
- Hona hemen:

3.1. Aziendaren antolamendua:

- a) Martxoaren 20tik aitzina azienda bakarrik sartu ahalko da hesi elektrikoaren bidez hertsitako tokian.
- b) Apirilaren 20an hesi elektrikoa zabaldu eta azienda Arbilletan ere bazkatu ahalko da.
- c) Maiatzaren 10ean ibarreko aziendaren marka egingo da eta ezkeraldea zabalduko da.
- d) Maiatzaren 10etik 24ra Arbilletako eremua errespetatuko da (hesi elektrikoak hertsitakoa barne).

3.2. Udalak, egoerak hala eskatuta, aziendaren antolamendua aldatu ahalko du.

4.- Sorogaingo bazkalekuen aprobetxamenduaren 2014ko kanonak honakoak izatea:

a) Ibarreko azienda:

Behi-azienda	27,00 €
Zaldi-azienda	35,20 €

Ardi-azienda(Maiatza)	3,52 €
Ardi-azienda (Uztaila)	1,55 €
Ahuntz-azienda	5,00 €

b) Frantses-azienda:

Behi-azienda	71,00 €
Ahuntz-azienda	4,00 €

c) Kanpoko azienda:

Behi-azienda	71,00 €
Zaldi-azienda	74,50 €

5.- Debekuak:

a) Aurizko arrazakoak ez diren garañoak sartzea debekatzea

b) Idiskoak eta zezenak sartzea debekatzea

6.- Aziendaren markak ondoko toki eta ordutegian eginen dira:

- Udaberriko marka: 2014ko maiatzaren 10ean, Sorogaingo korlean, goizeko 9:00etatik arratsaldeko 14:00etara.

- Urepeleko marka: 2014ko maiatzaren 24an, Urepelen, goizeko 10:00etatik aitzina.

7.- Marka Egunetan markatzen ez diren azienda guztiak ostiraletan bakarrik markatu ahalko dira Sorogaingo eskortan (etxearen ondokoan), 8:00etatik 14:00etara.

8.- Sorogainen bazkatzera sartuko diren azienden jabeek horien

legezko osasun ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte

bazkalekuetara sartu baino lehen.

9.- a) Sorogainen azienda sartzeko interesa duten Erroibarko bizilagunek izena eman beharko dute udaletxean urte bakoitzeko apirilaren 15a baino lehen. Eskaerarekin batera, azienda larri bakoitzeko 6,00 € eta azienda xehe bakoitzeko 0,60 € ordaindu izanaren banku agiria aurkeztu beharko dute. Aziendak Sorogainera eraman ezean, fidantza udalarentzako izanen da, eta animalia hiltzen den kasuetan bakarrik itzuliko da.

b) Eskaerarekin batera banku-helbideraketa bidez kobratzeko baimena aurkeztu behar da.

c) Horrela egiten ez duenak, kanpoko abeltzainekiko duen lehentasuna galduko du.

10.- Baigorriko Sindikatuak Sorogainen sartuko den aziendaren zerrenda aurkeztu beharko du, baita dagokien kanona ordaindu izanaren agiria ere, apirilaren 1a baino lehen.

11.- Urepeleko Markaren egunean Sorogainen sartuko den frantses azindaren %75 gutxienez oinez sartu behar da; gainontzekoa kamioietan sartu ahalko da Baigorriko Sindikatuak baimendu ondoren.

12.- Ez da kanpoko azindarrik sartuko.

13.- Udaberriko markan Sorogainen bazkatzera sartuko diren ibarreko azindak, data hori baino lehen ere sartu ahalko dira, baina Arbilleta eremuan bakarrik. Azienda horiek Marka Egunean korlera jaitsi beharko dira nahitaez.

Modu berean, marka eguna ez den beste egun batean azienda sartuko duten Erroibarko eta Frantziako abeltzain guztiek, ezarritako kanonaren %10eko errekgua ordaindu beharko dute. Kasu horietan ezingo da inolako arrazoi justifikaturik alegatu.

14.- Sorogainen sartu ahal den azienda kopurua baino gutxiago sartuko balitz, uztailaren 15etik aitzina Udalak aukera emango die lehenengo Ibarreko abeltzainei, eta, ondoren, kanpokoei, Santiago egunetik aitzina azienda belar-erdira sartzeko. Kasu horretan orainduko den kanona denboraldi osoari dagokionaren %50 izango da.

Gaiarekin lotuta alkateak, Garralda jk., hitza hartu du eta jakinarazi du bilera egin behar duela abeltzainekin eta Nafarroako Gobernuako Mendi ingeniari berriarekin, Mikel Reparaz, orain arte zegoenak, Oyaregi jk., berriki utzi baitu postu hori. Bilera horretan ikusiko da haren jarrera eta bai bazkalekuen gaian zein oihanekoetan nola lan egin nahi duen ikusiko da.

4.- BIZKARRETEKO ZOLAKETA LANAK

Bizkarreteko zolaketa lanei dagokienez, Garralda jk., alkateak, hitza hartu du proiektutik kanpoko zenbait lan egitea mahaigaineratuz. Horietako batek Urtasun zinegotizari eragiten dionenez, aipatutako zinegotzia bilkura aretotik atera da gaia eztabaidatzen den bitartean.

Alkateak, Garralda jk, azaldu du zolaketa lanetarako dirulaguntza eskatu zitzaioela Tokiko Administrazio Departamentuari 2009-2012 Nafarroako Tokiko Azpiegituren Planaren barnean eta lanak hautatu eta lehenesteko aplikatzen den formularen bidez 10 eko puntuazioa lortzeko, Plan horren barnean sartu ahal izateko, proiektuan aurreikusita zeuden zenbait partida kendu zirela eta horrela aurkeztu zela Departamentu horretan. Partida horietako batzuk egitea beharrezkoa dela uste du, obrari zuzenean eragiten diotelako. Hortaz, Construcciones Mariezcurrena enpresari eskatu dio horiek aurrekontua aurkeztea.

Alde batetik Fernandorenaren ondoan karrika batzuk elkartzen diren zati bat proiektutik kanpo geratu zen eta hori egiteak 8.326,84 euroko aurrekontua du, gehi %21 BEZ. Kostu hori Udalak hartu behar du bere gain. Beste aldetik karrikan egin behar zen zapata Jose Luis Mendiveren lursail batean egin

behar da eta honek lursail horren zati bat utzi beharko du zapata hori egiteko (Zapatak hartzen duen paretaren neurriak dira 0.50 m²/ml 42 ml-ko luzaeran (21 m²)) eta karrika zabaltzeko, eta lursailaren pareta luzatu behar da eta horrek guztiak 4.869,48 euroko kostua dauka, gehi BEZ %21. Pareta Mendiverena baldin bada ere, Udalak kostu osoa bere gain hartu beharko du, 7 poligonoko 38 lursailetik utzitakoa konpentsatzeko. Eta, azkenik, karrika handitzeak Irigoyen-Urtasunen pareta bati eragiten dio eta pareta hori ere egin behar da, haren kostua 4.070,75 euro gehi %21 BEZ izanik. Azkeneko kasu hau, pareta jabetza pribatukoa denez baina lanek eragiten diotenez, proposatu da Udalak kostuaren %50 bere gain hartzea.

Idazkariak hitza hartu eta esan du alkateak, Garralda jk., proposatu duena onartuz gero, eskatu behar zaiela jabeek Udalak proposatu dituen baldintzak onartzen dituztela idatziz sinatzea eta lanen zuzendaritzari ukitutako lursail eta neurriak biltzen dituen txostena egitea.

Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da alkateak, Garralda jk., proposatu dituen lanak egitea aurkeztutako aurrekontuen arabera, hots, 8.326,84 euro gehi % 21 BEZ (karriken artekoa), 4.869,48 euro gehi %21 BEZ (Mendiveren pareta) eta 4.070,75 euro gehi %21 BEZ (Irigoyenen pareta) hurrenez hurren, beti ere jabeek erabaki honetan aipatu diren baldintzak onartzen dituztela dioen konpromezu dokumentua sinatzen badute.

Urtasun zinegotzia bilkura aretora itzuli da.

5.- ERROIBARKO EGUNAREN PROPOSAMENA

Alkateak, Garralda jk., proposatu du Erroibarko Eguna 2014ko uztailaren 20an ospatzea.

Aho batez erabaki da Erroibarko Eguna 2014ko uztailaren 20an ospatzea.

6.- SOROGAINGO ATERPEA

Alkateak, Garralda jk., hitza hartu du eta esan du Sorogaingo aterpearen alokairua dela eta aurreko bilkuran aipatu zuela adjudikaziodunak, Gonzalez ak., idazki bat aurkeztu zuela 2013ko abenduaren 23an eta horretan kontratua bertan behera utzi nahi zuela esaten zuen, 2014ko martxoaren 31n; 2014ko urtarrilaren 23an idazki berria aurkeztu zuela alkatearekin eta idazkariarekin bilera egitea eskatuz sortutako kalte-ordainak ordaintzeko adostasun batera heltzeko eta bilera horretara Noete elkarteko zerbitzu juridikoen kide bat ere joango zela esanez. Modu berean, idazki horretan jakinarazi zuen Nafarroako Gobernuko Antolakuntza eta Turismo ataleko nagusiarekin, Enrique Jaurrieta, bildu zirela eta kezkaturia gelditu zela. Idazkia aurkeztu eta bilera egin aurretik, udalak bilera eduki zuen Enrique Jaurrietarekin eta Itziar Iriarterekin Sorogainen egindako prozedura, jarduketa eta lan guztiak azalduz. Azkenik 2014ko otsailaren 19an, bilera egin zen udaletxean eta hara joan ziren errentatzailearen aldetik, Francisco Jimenez eta Jesús Arruago, Noeteko letratua, eta Udalaren aldetik Xabier Cia, algoazila, Edurne de Miguel, teknikaria, Hector Nagore, letratua, Orreaga

Urtasun, zinegotzia, Marisol Ezcurra, idazkaria eta alkatea, Garralda j. Bilera horretan errentatzaileak esan zuen ezin izan dutela jarduera behar bezala garatu ezin izan dutelako turismon alta eman ezta "Erantzukizun aitormena" aurkeztu ere, Udalak ez baitu Turismok emandako txostenak zioena bete, hots, zeuden hutsuneak konpontzea. Aitzitik, Udalak lehen aipatutako Turismo teknikariek izandako bileraren ondoren badaki errentatzaileak titulartasuna aldatu ahal izan zuela, gaur egun Ana Zabalzaren izenean dagoelako oraindik, baita Erantzukizun aitormena aurkeztu ere, txostenean aipatzen diren hutsune horiek jarduera martxan egonda ere konpontzen ahal zirelako. Beraz, jarrerak aurka egonda, erabaki da alde bakoitzak likidazioa aurkeztea eta berriro elkartzea adostasun batera iristeko. Azkenik, Noeteko letratuak, Arruago jk., eskatu du errentatzaileak hala eginda, kontratua martxoaren 31n bukatu ordez otsailaren 28an bukatzea, gastu gehiago ez izateko, hori guztia aurkeztuko den likidazioa kontuan hartu gabe. Esan zaio eskaera idatziz aurkez dezala eta Udalak aztertu eta erantzuna emango diola. Azkenik, 2014ko otsailaren 21ean, idazki berria aurkeztu da eta eskatzen dute kontratua 2014ko otsailaren 28an bukatzea, *martxoan gastu gehiago ez edukitzeko*, nahiz eta idazkian esaten den *martxoaren 15a arte bereak diren gauzak ateratzeko epea ematea eta orduan instalazio guztiak berrikustea*.

Alkateak, Garralda jk., jakinarazi du eskaera hori Hector Nagoreri eman zaiola txostena egin dezan. Txosten hori irakurri da eta ondorioztatu da Sorogaingo aterpeko errentatzaileak egin duen eskaera ezin dela onartu, hots, kontratua 2014ko martxoaren 31n bukatu ordez otsailaren 28ra aurreratzea, eta martxoaren 15a arte epea ematea instalazioak erabiltzeko inolako ordainketarik egin gabe, kontratua arautzen duen Baldintza Pleguan dioenaren aurkakoa baita eta jabetza publikoko ondasun eta zerbitzuen aprobetxamendua eta kudeaketa arautzen duen antolakuntza juridikoa urratzen duelako.

Ernaga jk. hitza hartu du eta Udalak Sorogaingo aterpearekin zerikusia duen guztia nola kudeatu duen ongi iruditzen ez zaiola esan du, baita aurreko errentatzailearekin ere, Elena Lozano, berogailua, beheko sua eta generadorea konpontzea eskatzen baizuen, eta konponketa horiek geroago egin ziren, 100.000 euro gastatuz. Etxe horretan 600.000 euro gastatu dira eta oraindik ez dago aterpea zabalik edukitzeko proiekturik. Eta azkeneko adjudikazioa aurreko errentatzailearekin lan egiten zuenari eman behar izan zitzaioke dio, eskualdekoa zelako eta interesatua zegoelako. Idazkariak hitza hartu du eta esan dio kontratua bertan behera utzi ondoren lege ezin dela zuzenean eman adjudikazioa, berriro lehiaketa egin behar dela Nafarroako Kontratu Publikoen 6/2006 Foru Legeari jarraikiz, eta horrela egin ezean, Udala legetik kanpo aritu izango zela eta hori bai akatsa izango zela. Garralda jk. alkateak, dio onetsitako baldintza plegua aurrekoa baino askoz ere faboragarriagoa zela eta aipatutako neskak aurkezteko aukera izan zuela eta gainera baldintza hobegotan hartzeko aukera zuela.

Marina Gonzalezek, Sorogaingo errentatzaileak, aurkeztu duen eskaera eztabaidatu ondoren, hots, *Sorogaingo aterpearen errentamenduaren kontratua bertan behera uzteko data 2014ko otsailaren 28ra aurreratzea, martxoan gastu gehiago ez edukitzeko, eta martxoaren 15 arte epea edukitzea bereak diren gauzak aterpetik ateratzeko eta egun horretan instalakuntza guztiak berrikustea*, horren inguruan Nagore letratuak egin duen txostena ikusita Udalak erabaki du aldeko lau botoz (Urtasun, Juanarena, Villanueva eta Garralda) eta bi abstentzioz (Martinez eta Ernaga):

1º.- Nagore letratuaren txostena onartu eta bere egitea.

2º.- Txosten horrek dioenarekin bat egitez, Sorogaingo aterpeko errentatzaileak egin duen eskaera ez onartzea, hots, kontratua 2014ko martxoaren 31n bukatu ordez otsailaren 28ra aurreratzea, eta martxoaren 15a arte epea ematea instalazioak erabiltzeko inolako ordainketarik egin gabe, kontratua arautzen duen Baldintza Pleguan dioenaren aurkakoa baita eta jabetza publikoko ondasun eta zerbitzuen aprobetxamendua eta kudeaketa arautzen duen antolakuntza juridikoa urratzen duelako.

3.- Hortaz, kontratua bertan behera uzteko data 2014ko martxoaren 31n mantentzea.

4.- Erabakia Marina Gonzalezek, Sorogaingo aterpearen adjudikaziodunari, jakinaraztea.

7.- NAFARROAN D EREDUAN ARI DIREN IRAKASLEEI BABESA ETA ESTIMUA AGERTZEKO MOZIOA, BILDUK AUKEZTUA.

Jarraian Martinez ak. Bilduk aurkeztu duen mozioa irakurri du, Nafarroan D ereduari ari diren irakasleei babesa eta estimua agertzeko asmoz.

Ondoren, alkateak, Garralda jk., hitza hartu du eta aipatu du nahiz eta D ereduaren alde egon, uste duela ez dagokiola Udalari erabakia hartzea eta, nahiz eta mozioan esaten diren zenbait gauzekin ados egon, ezetz bozkatuko du, ez ideologikoki baizik eta esandakoarengatik, uste baitu banaka babesa adierazi ahal dela baina ez Udalaren aldetik. Ernaga jk. hitza hartu du eta esan du alkateak esan duenarekin ez dagoela ados, mozioaren berriz, bai, eta uste duela Udalak gaia eztabaidatu behar duela, Udalak hezkuntza zaindu behar duelako, eta nolako udalerria nahi duen zaindu behar duelako, eta, kasu honetan, hezkuntza eredu bat arrazoirik gabe epaitzen denean zerbait esan beharko dela uste baitu.

Martinez ak. hitza hartu du eta esan du nahiz eta D eredua defendatu besteak ere defendatzen duela, hautatzeko askatasunean sinesten duelako eta bakoitzak bere seme/alabei eman nahi dien heziketari buruz hartzen dituen erabakiak errespetatzen dituelako. Ez dago ezta hezkuntza eredu baten izen ona galaraztearen alde eta, hortaz, bozkatuko ez duela dio.

Garralda jk., alkateak, hitza hartu du eta azaldu du bere proposamena dela gaiaz iritzirik ez ematea eta mozioa ez bozkatzea.

Ondoren, aldeko lau botoz (Urtasun, Juanarena, Villanueva eta Garralda), abstentzio batez (Martinez a.) eta aurkako boto batez (Ernaga j.) mozioaren inguruko iritzirik ez ematea eta hura ez bozkatzea erabaki da.

8.- NAFARROAKO TOKIKO ADMINISTRAZIOA ARRAZIONALIZATZEKO ETA IRAUNARAZTEKO LEGEARI BURUZKO MOZIOA (Udal Mapa), BILDUK AURKEZTUA

Alkateak hitza hartu du eta jakinarazi du Erroibarko Kontzejuekin bilera izan zuela Nafarroako Tokiko administrazioa arrazionalizatzeko eta iraunarazteko legeari buruz mintzatzeko eta horren inguruan Bilduk aurkeztu duen mozioa irakurri du. Mozioan esaten den guztiarekin ados ez dagoela esanez, proposatu du mozio alternatibo bat onartzea, udala eta eskualdeari egokitua eta hori irakurri du.

Ernaga jk. hitza hartu du eta esan du oinarrian bi mozioek gauza bera diotela, alkateak proposatu duena zehatzagoa eta tokiko egoerari egokituagoa, hiru udalerriri bakarrik mugatzen delako eta guk nahi dugun gauza bera gainontzeko toki entitateek nahi dutela. Hortaz, eta bateragarriak direnez, bien alde bozkatzea proposatu du eta Martinez a. ere horren alde agertu da.

Ernaga jk. bi mozioen alde bozkatzeko egin duen proposamena eztabaidatu ondoren, ez onartzea erabaki da, Urtasun, Juanarena, Villanueva eta Garraldaren aldeko botuez.

Alkatearen, Garralda j., proposamena eztabaidatu da eta aho batez erabaki da honako mozioa onartzea:

NAFARROAKO TOKIKO ADMINISTRAZIOA ARRAZIONALIZATZEKO ETA IRAUNARAZTEKO LEGE EGITASMOAREN ETA NAFARROAKO PARLAMENTUAN TOKIKO ADMINISTRAZIOAREN BERRANTOLAKETA AZTERTZEKO OSATU DEN PONENTZIAren aurrean eta Toki Erakundeetan izanen duten eraginaz jabeturik Udalak erabaki du:

A).- **NAFARROAKO PARLAMENTUAN TOKIKO ADMINISTRAZIOAREN BERRANTOLAKETA AZTERTZEKO OSATU DEN PONENTZIAN** tokiko erakundeek parte hartze handiagoa izan dezaten bideak irekitzea eskatzea, proposamenak aztertu, Tokiko Entitateen eta tokiko zerbitzu publikoen kudeaketarekin zerikusia duten sektoreen aportazioak partekatu eta legearen ezaugarri garrantzizkoenetan sakontzeko lan taldeak sor daitezen. finantziarioa, eskumenak eta zerbitzuak.

Hortaz, eta adostasun batera heltzeko, proposatu da ponentziaren emaitzak oinarri gisa hartzea, eta bi hilabeteko epea edukitzea dokumentua Legebiltzarreko batzordeari heltzeko, udalen parte hartzea ahalmen duz.

B).- Kontuan hartuz legebiltzarreko batzordeko kideek lantzen ari diren zirriborroan Nafarroa eskualdeka banatzen dela, Zerbitzu Administrazioen Batasunak (ASA) sortuz, eta gure udalerriri dagokiona Erroibar, Auritz, Orreaga eta Luzaideko Udalak hartzen dituela. Udal honek, 2012ko urriaren 31n hartu zuen erabakiaren bitartez, Auritz eta Orreagako Udalek hartutako erabakiekin batera, Tokiko Administrazio Departamentuari eskatu zion ASA

(Administrazio Zerbitzuen Batasuna) sortzea egun daukagun Idazkari batetaz baliatzeko Batasuna aldatuz eta hori ezin izan zela egin indarrean dagoen Legearen bateraezina delako. Hiru Udalek uste dugu Luzaideko udalerriak, dituen berezitasunak kontuan hartuta (mugan egotea, errealitate sozial bereizia, gure udalerrietatik urrun eta Pirinioko isurialde horretan bakarra) tratu berezia izan beharko lukeela eta guk proposatutako batasunetik bereizia, nahiz eta harreman gehien duen udalerriak gureak izan. Esandakoa kontuan hartuz, gure eskualdeko ASA (AZB) Erroibar, Auriz eta Orreagako Udalek osatzea eskatzen dugu.

C).- Hiru udal horietako bakoitzak hartutako erabakiaren bitartez adierazi du hiru udaletan lanean ari diren langileen lan egoera egonkortu nahi duela. Hortaz eskatu da Lege berrian aurreikustea sortuko den ASA (AZB) hiru udaletan lanean ari diren langileak bere gain hartzea.

D).- Mozio hau bultzatu duen Udaletako bat izanik eta gainera konposatua eta kontzejuen eskumen eta kudeaketarekin bereziki sentiberatua, proposatu da Tokiko Administrazioaren Foru Legean kontzejuei ematen zaizkien eskumenak haienak izaten jarraitzea, Argiteri Publikoa eta obra baimenak ematea izan ezik, eta beraiek izatea ondarea administratu eta mantentzeko ardura eta baita haren aprobetxamendua eta erabilera antolatu eta arautzea ere.

Hortaz, lau urtez hauteskundeetan parte hartzen duten kontzejuek eta herria aurrera ateratzeko lan egiten duten kontzejuek bere autonomia mantendu beharko lukete, udalerrria gobernatzen duen Udalaren erabat menpe ez egoteko.

E).- Kontuan hartuz gaur egun badaudela elkarren ondoan dauden Udalen arteko hitzarmenak eta, zenbait kasuetan, proposatu den Legean udal horiek distritu eta mankomunitate diferenteetan sartuko direla, eskatzen da indarrean dauden hitzarmenak errespetatzea eta hitzarmen berriak sinatu ahal izatea, nahiz eta distritu eta mankomunitate diferenteetan egon.

F).- Aurizko Udalak baduela udaletxe handia eta infraerabilia eta horretan ASako zerbitzu administratiboak zein beste batzuk ezarri ahal direla eta horretarako etxea egokitu beharko litzatekeela eta kostua 60.000 eurokoa izango zela. Hortaz, Auritz eta Orreagako Udalekin batera, proposatu zaio Tokiko Administrazio Departamentuari etxe hori egokitzea bai ASako zerbitzu administratiboak berrantolatu eta batzeko zein mankomunitate eta distritu berrien zerbitzuak ere.

G).- Erabaki honen berri Nafarroako Legebiltzarrean ordezkatuak dauden talde politiko guztiei igortzea, baita Tokiko Administrazio Kontseilariari eta Luzaide, Auritz eta Orreagako Udalei ere.

9.- SEXU- ETA UGALTZE-OSASUNARI BURUZKO LEGEA BERRITZEKO AURREPROIEKTUAREN MOZIOA, BILDUK AURKEZTUA.

Alkateak, Garralda jk., hitza hartu du eta Sexu- eta Ugaltze-Osasunari buruzko legea berritzeko aurreproiektuaren inguruan Bilduk aurkeztu duen

mozioari buruz dio gaia tokiko entitateetatik kanpo dagoela eta norberaren kontzientziari dagokiola eta alde batera uztea proposatu du, nahiz eta zinegotziren batek nahiko balu eztabaidatu eta bozkatu ahal den. Ernaga jk. dio uste duela Udalbatzak mozioa bozkatu behar duela, onartu nahi den legeak emakumeek abortatzeko duen eskubidea urratzen duelako eta hori ordaindu ahal dutenei bakarrik mesede egiten dielako.

Mozioa eztabaidatu da eta erabaki da aldeko hiru botoz (Urtasun, Martinez eta Villanueva), bi abstentzioz (Juanarena eta Garralda) eta aurkako boto batez (Ernaga) Bilduk Sexu- eta Ugaltze-Osasunari buruzko Legea berritzeko aurreproiektuaren inguruan aurkeztu duen mozioa ez onartzea.

10.- SISTEMA ELEKTRIKOA BERRITZEKO LEGEAREN AURREPROIEKTUARI BURUZ BILDUK AURKEZTUTAKO MOZIOA

Sistema elektrikoa berritzeko Legearen aurreproiektuari buruz Bilduk aurkeztu duen mozioa azaldu eta laburbildu ondoren, alkateak, Garralda jk., hitza hartu du eta esan du nahiz eta hor esaten diren zenbait gauzekin ados egon guztiekin ez dagoela ados. Hortaz, proposatu du beste mozio bat onartzea Bilduk aurkeztu duen mozioaren gauza batzuk eta berak proposatzen dituen beste batzuk bilduz.

Ernaga jk. dio alkateak aipatzen duena gauza diferentea dela eta uste duela legeak dioena kontsumitzaileen kalterako dela. Eta uste duela alkatearen proposamenak eskatzen duena Iberdrolarentzako hobekuntzak besterik ez direla.

Bilduren proposamena eta alkatearena eztabaidatu ondoren, Bilduren proposamenaren alde egin dute Martinezek eta Ernagak, eta alkatearen proposamenaren alde Urtasun, Martinez, Juanarena, Villanueva eta Garralda udalkideek, eta Ernaga j. abstenitu egin da, hona hemen alkatearen proposamena:

Sistema Elektrikoa berritzeko Legearen aurreproiektuaren aurrean Udalak erabaki du Iberdrolari eta Espainiako Gobernuari honakoa jakinaraztea:

1.- Orotz eta Arike arteko zatia egitea eta lerroa Aurizberriraino eramatea Luzaidera doan lerroarekin bat eginez.

2.- Mezkiritz-Uretako tartea altan egitea, orain bajaran dagoelako, eta badagoelako bizilagun kopuru majua beharrezko hornidurarik gabe.

3.- Arreta berezia ematea eguraldi txarrari, 2013an askotan geratu baikara argirik gabe eta lerroak ongi garbitu behar direlako.

4.- Gobernuari eskatzea negutegi efektuko gasen jaulkipena gutxiesteko konpromezua errespetatzea eta energia berriztagarriak eta energiaren aurrezpena sustatzea.

5.- Erroibarko Udalak konpromezua hartzen du eraginkortasuna, aurrezpena eta energia berriztagarriak bere eskumeneko arloan sustatzeko.

11.- IRATI IRRATIAREN ESKAERA

Garralda jk. hitza hartu du eta jakinarazi du Irati Irratiak eskatu duela dirulaguntza ekonomikoa ematea proiektuan parte hartzen duten udal guztiek, proiektua bideragarria izan dadin. Banaketaren arabera Udal honek 1.140 € eman beharko lituzke. Alkateak eta Juanarena jk. hitza hartu dute eta esan dute uste dutela Udalak 9000 euro baino gehiago eman zituela eta horrekin nahikoa dela. Hala ere 2014an 500 euro ematea proposatu da. Ernaga jk. eskatu duten guztia ematea proposatu du eta Martinez ak. 1000 euro. Bozketa egin da eta aldeko lau botoz (Urtasun, Juanarena, Villanueva eta Garralda) Irati Irratiaren proiektuari laguntza ematea erabaki da 500euro jarriz eta Martinez eta. Ernaga zinegotziek aurka bozkatu dute uste baitute Ernaga jk., eskatu duten %100 eman behar zaiela, eta Martinez ak. 1000 euro.

12.- DENETARIK

- Alkateak, Garralda jk, jakinarazi du sinatu dela Erroibarko udalaren eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren arteko hitzarmena Foru Komunitateko Oihan Ondareko zenbait lursailletako Arrantza eta Ehizako Baliabideak Aprobetxatzeko.

- Modu berean jakinarazi du Nafarroako Gobernuak Erro-Orreaga Fundazioa desegin duela. Hortaz bilera eskatu da Sustapen Departamentuko Kontseilariarekin, Zarraluqui j. Bilera egingo dela esan digute baina oraindik ez dago zehaztua.

13.- ESKARIAK ETA GALDERAK

- Ernaga jk. hitza hartu du eta eskatu du Sustapen Departamentuarekin bilera egitea zeharbidearen zoladuraren dirulaguntza berriro eskatu eta Mezkirizko zein Lintzoaingo lanetaz mintzatzeko. Alkateak, Garralda jk., hitza hartu du eta jakinarazi du horretaz Tokiko Administrazioako Departamentuarekin mintzatu behar dela eta zeharbidearen kostua Departamentu horrek diruz lagundu behar zuela aipatu zela aurreko bilkuran. Gobernutik esan diotela Mezkirizko lanak aurrean egin ahalko direla eta Lintzoaingo lanak (II fasea) eta Bizkarretekoak (III fasea) egiteko bilera egin beharko dela.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez bilkurari bukaera eman zaio 15:45ean, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.